



Militantearen izpiritua eta enpresariaren zentzua.

EKBko lehendakariordea izan dugu Joxemi. Edozein tituluk adieraz dezakeen baino askosaz gehiago izan genuen, ordea, Joxemi EKBren barruan: euskalgintzan eta euskal kulturgintzan beharrezkoak diren jokabide bateratuaren eta elkar-lanaren eragile argia eta sutua.

Bere urtetako bizia lan-taldeak eratzen eta talde-lana bultzatzen eman zuen: Horren fruituak dira gaurko Argia, Apika, Antza, eta... Euskaldunon Egunkaria, besteren artean. Neurri handi batez haren obrak izanik, lan-talde zabalaren meritu dira, eta horren eginkizun obra burutzea. Ez da makala eskuetan duten betekizuna.

EKBren barruan eta proiektu horiek obra bihurtzean Joxemik ondo lotu eta guztioi erakutsi digun dohain eta mezu bikoitza nabarmendu nahi nuke: izpiritu militantearen sua eta zentzu enpresarialaren kemena, ekimen sozial eta herritarren bultzaturiko proiektuentzat. Bata ala bes-

tea ahazteko, edota bata bestearen aurka ipintzeko arriskua eta joera eduki izan ditugu.

Euskalgintzaren eta euskal kulturgintzaren hegazkinak, indarrez aireratuko baldin bada, motor airosoa behar du, militantziarena, baina baita pista luzea ere: hots, azpiegitura enpresarial sendoa.

Horrek ez du kentzen erakunde publikoek duten erantzunkizuna ekimen sozial eta herritarreko proiektuak sostengatzeko; eta Joxemi ez zen kokildu horiei beren eran-tzukizunaren arabera erantzuna eskatzean. Zoritxarrez behin baino gehiagotan ixiltasuna edota zapuzkeria aurkitu zituen.

Beste dohaina pazientzia eta luzerako begirada zituen, ordea, Joxemik; horiei oratu beharreko garaian gaudela dirudi.

**Paulo Agirrebaltzategi
EKBko Lehendakaria**